

Donostian, bildu dira: I. M.<sup>a</sup> Etxaide jauna, buru, Lekuona, Lojendio, Irigaray, Mitxelena ta Oleaga jaun euskaltzaiñak. Labayen, Aresti, Etxaniz, San Martin, Arruza, Mirande, Aita Larrañaga Pingliang-go apezpikua eta Irigoyen jaun urgazleak. Gorostiaga jaunak ezin etorria adierazo dau.

Batzarretako azkenengo agiri biak irakurri dira eta ontzat artu dira.

Jose A. Amilibia jaunak bialdu dauen karta bat irakurri da. Mondragoen umeentzat euskal-eskola bat zabaldu gura dau eta Euskaltzaindiari laguntasuna eskatuten deutso, batez be an iñor ezagututen badogu gure partetik aregana bialdu dai-gun. Erantzun bekio Bernabe Berecibar jaunagaz berba egin leikeala. Eta Lekuona jaunaren partez Jose Luis Iñarra bertako artzipresteagana be joan leitekeala.

Irigoyen jaunak Bilbon Urtarrillean Euskaltzaindiak egin zituen jai bien kontu emon dau. Oso ondo urten eben. Capitol-ean errege egunez egin zan jaijan 20.037,35 peseta irabazi zirean, eta Arriaga Teatroan Urtarrillaren 29-koan 6.001,70 peseta. Zorionak eta eskerrak emon bekioz Irigoyen jaunari egin dituen alegiñakaitik.

Irigoyen jaunak Bizkaiko bertsolarien laugarren txapelketea zelán egin leitekean adierazo dau. Aurreko urteetan legez Urkiolan San Antonio egunez asiko litzake eremu aretakoan artean, eta azken txapelketa nagusiaz Bilbon, Capitolean, Aguztuaren 27-an amaitu. Diño Bizkaiko Ahorro-Kaxan egon dala eta prest dagozala aurreko urte bietan legez amairu milla peseta saritan emoteko. Orretarako karta bat idatzi bear jakie eskabidea egiñik. Egin bedi.

Jaun berak diño Betelu-n Aprillaren 23-an Nafarroako bertsolarien bigarren txapelketako lenengo saioa egin dala. Urrengoa Irurita-n Bagillaren 1-ean egitekoa da.

Lizardi-ren gorazarrez egin dan poesia-sariketarako juradua izentau da: Lekuona, Labayen eta Erkiaga, azkenengo au berak lanik bialtzen ezpadau. Datorren batzarrerako erabakia ekarri bear dabe Maiatzaren 28-an Tolosa-n sariak partidu aal izateko.

Irigoyen jaunak diño Deba-tik telefonoz berba egin dauela beragaz bertako euskal-eskoletako batek. Ango Ayuntamientoagaz bat eginda Gipuzkoako bertsolari barrien artean txapelketa bat egin gura leukie eta laguntasuna eskatuten dabe. Emon bekie aal dan eta bear daben laguntasun guztia.

Irigaray jaunak euskal-metodo barriaz berba egin dau. Bere eretxiz daukazan akats batzuk azaldu ditu, zuzendu bear lirakeanak.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.